



Urriak 12, ostirala

21:00ean

Sarrera: 6 €
(Gaztelaniaz)

SUTOTTOS (Argentina): "INESTABLE"

Sutottos konpainia argentinarraren ikuskizun honetan umorearen bidez tratatzen dira beldurra eta haren ondorenak: paranoiak, fobiak, obsesioak eta antsietateak. Gaizki itxita dagoen ate bat edo pareta bateko hezetasuna neurosi-egoera bilakatuko dira, gure beldurren baitan harrapatuta sentiarazteraino. Bi gizonek ez dute etxetik ateratzen lortzen, inguruan duten guztiak mehatxu egiten diela sentitzen baitute.

Leon eta Cesarren paranoia areagotu egingo da: zenbat eta gehiago ahalegindu, orduan eta zailago izango dute beren itxialditik ateratzea. *Inestable* gogo-aldarteen segida bat da, errealaren eta irrealaren arteko mugak nahasteraino eramango gaituena...

Linka: <https://www.youtube.com/watch?v=trJ3o873fAw>



Urriak 19, ostirala


21:00ean

Sarrera: 6 €
(Gaztelaniaz)

Tdiferencia: "SALIR DE CUENTAS A LOS CINCUENTA"

Oso komedia eroa, non pertsonaiaren batekin momenturen batean bat etorriko zarela ziur gaude. 25 urteetatik aurrera ez da erraza galdera hauek entzun ez izatea: eta zuk... Noizko? Noizko mutil edo neska lagun bat, noizko elkarrekin bizi edo ezkondu, noizko semea edo alaba, noizko bigarrena, noizko basektomia... noizko...? Sudur-puntan jartzen zaidanean! Gure protagonistek nahi dutenean egitea erabaki dute, haien bizilagunek, lagunak, familiak, ezagunek eta ezezagunek ordea... badute zeresana. Gehiegi. Zertaz ari naizen hitz egiten badakizu, ez da hala? Lehenerdientzako komedia, familia ugariko gurasoentzat, Dinkin-entzat, ezkongaiantzat, ezkonduentzat... Mundu guztiarentzako den komedia. Zatoz bizitzaz barre egitera Tdiferenciarekin!

Linka: <https://youtu.be/xaPIteGWwFM>



Urriak 26, ostirala

21:00ean

Sarrera: 6 €
(Euskaraz)

TARTEAN: EZ DOK HIRU "Akustikoa"

TARTEANen filosofiari jarraituta (gure lana ahalik eta espazio gehienetara zabaltzea) "Ez dok Hiru" ikuskizunaren bertsio akustikoa prestatu dugu. Publiko helduari zuzendutakoa, umorezkoa, euskaraz. Patxo Telleriak testuak sortzeko eta Mikel Martinezek, eta Telleriak berak, zuzenean antzezteko duten estilo paregabearekin. Formato berri honetan, Mikel Martinez eta Patxo Telleria, musikari-aktore batek lagunduta (Adrian Garzia de los Ojos), Euskal Herriko imajinario musikalaren errepasso ironiko, absurdu eta dibertigarria eskainiko dute. Gure musika ondarea, altxor bat da, gure memoria historikoaren lekuko emozionala.

"Ez dok Hiru", kantutegian oinarritutako ikuskizun teatrala da. Gure modukoa, eroa, deskonzertantea, irriarria azalez... Baina azal horren poro bakoitzari geure musikarekiko maitasuna dario.

Linka: https://youtu.be/Yel7RpKy_k0

* Sarrerak: Aldez aurretik Kultur Etxean (Tfnoa: 948600412) eta ekitaldia hasi baino ordu bat lehenago.

Antolatzailea: **KULTUR Kontseilua – Irurtzungo Udala.**

www.irurtzun.eus



IRURTZUN
UDALA-AYUNTAMIENTO



Nafarroako
Gobernua
Gobierno
de Navarra